

**2023KO XXXXAREN XX(E)KO XXX DEKRETUAREN III. ERANSKINA**  
**TRENBIDEETAKO SEINALEZTAPEN- ETA TELEKOMUNIKAZIO-SISTEMETAKO**  
**ESPEZIALIZAZIO-IKASTAROA**

1. Identifikazioa.

Izena: Trenbideetako Seinaleztapen- eta Telekomunikazio-sistemak.

Maila: Goi-mailako Lanbide Heziketa.

Iraupena: 990 ordu.

Lanbide-arloa: Elektrizitatea eta Elektronika. (Soilik Lanbide Heziketaren irakasgaien sailkapenaren ondoretarako).

Jakintza-adarrak: Ingeniaritza eta Arkitektura. Zientziak.

ECTS kredituak: 36.

Hezkuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuko erreferentea: P-5.5.4.

2. Espezializazio-ikastarorako sarbidea.

Titulu hauetako bat edo ikasketetarako baliokidea den titulua edukitzea:

- Instalazio termiko eta fluidodunen proiektuak garatzeko goi-mailako teknikariaren titulua, ekainaren 30eko 427/2009 Dekretuak ezarritakoa; dekretu horren bidez, Instalazio termiko eta fluidodunen proiektuak garatzeko goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion curriculuma ezartzen da.
- Instalazio termiko eta fluidodunak mantentzeko goi-mailako teknikariaren titulua, ekainaren 30eko 426/2009 Dekretuak ezarritakoa; dekretu horren bidez, Instalazio termiko eta fluidodunak mantentzeko goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion curriculuma ezartzen da.
- Sareko informatika-sistemen administrazioko goi-mailako teknikariaren titulua, irailaren 21eko 244/2010 Dekretuak ezarritakoa; dekretu horren bidez, Sareko informatika-sistemen administrazioko goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion curriculuma ezartzen da.
- Telekomunikazio- eta informatika-sistemetako goi-mailako teknikariaren titulua, uztailaren 3ko 118/2012 Dekretuak ezarritakoa; dekretu horren bidez, Telekomunikazio- eta informatika-sistemetako goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion curriculuma ezartzen da.
- Mantentze-lan elektronikoetako goi-mailako teknikariaren titulua, apirilaren 22ko 341/2013 Dekretuak ezarritakoa; dekretu horren bidez, Mantentze-lan elektronikoetako goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion curriculuma ezartzen da.
- Industria-automatizazioko eta -robotikako goi-mailako teknikariaren titulua, azaroaren 27ko 254/2012 Dekretuak ezarritakoa; dekretu horren bidez, Industria-automatizazioko eta -robotikako goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion curriculuma ezartzen da.

3. Lanbide-profila.

3.1. Konpetentzia orokorra:

Espezializazio-ikastaro honen konpetentzia orokorra da trenbideetako telekomunikazioetako eta seinaleztapeneko sistemen muntatze eta mantentze aurreratua antolatzea, planifikatzea, gainbegiratzea eta gauzatzea, indarrean dagoen araudia aplikatuz, eta kalitateko, segurtasuneko, laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumena babesteko eta errespetatzeko protokoloak betez.

### 3.2. Lanbide-ingurunea:

Espezializazio-ikastaro hau gainditu eta horren ziurtagiria lortu duten ikasleek aukera izango dute trenbideetako seinaleztapen- eta telekomunikazio-sistemak instalatu, konfiguratu, gainbegiratu eta mantentzearekin lotutako proiektuak garatzeko lankidetzaz lanak burutzen dituzten enpresetan jarduteko.

Gainera, sektore publikoan zein pribatuan jarduteko moduan izango dira, trenbideko garraio-zerbitzuetan erabilitako seinaleztapen- eta telekomunikazio-sistemak instalatzen eta mantentzen, bai Trenbide Sektorearen 38/2015 Legearen ildotik etorritako zerbitzuetan, bai trenbide autonomikoek, hiriko trenbideek (tranbiek), hiri-inguruko trenbideek (metroek) eta hiriarteko trenbideek (metro edo tranbia arinek) emandako zerbitzuetan. Beste enpresa-sektore batzuen artean, hauek nabarmendu behar dira:

- Trenbideetako seinaleztapeneko eta segurtasuneko azpiegiturak instalatzeko enpresak.
- Trenbideetako telekomunikazio-sistemak instalatzeko enpresak.
- Trenbide-sistemako aginte-kontrolako eta seinaleztatzeko sistemak instalatzeko enpresak.
- Trenbideetako seinaleztapeneko eta segurtasuneko azpiegiturak mantentzeko enpresak.
- Trenbideetako telekomunikazio-sistemak mantentzeko enpresak.
- Trenbide-sistemako aginte-kontrolako eta seinaleztatzeko sistemak mantentzeko enpresak.
- Estatu-mailako trenbide-azpiegiturak administratzen dituzten enpresak.
- Autonomia-erkidegoko, hiriarteko edo tokiko trenbide-azpiegiturak administratzen dituzten enpresak.
- Metropoli-trenbideetako azpiegiturak administratzen dituzten enpresak.

Honako hauek dira lanpostu eta lanbiderik esanguratsuenak:

- Seinaleztapen-instalazioen arduradun teknikoa.
- Telekomunikazio-instalazioen arduradun teknikoa.
- Teleaginte-instalazioen arduradun teknikoa.
- Segurtasun-instalazioen mantentze-prozesuak planifikatzeko eta programatzeko teknikaria.
- Telekomunikazio-sistemen mantentze-prozesuak planifikatzeko eta programatzeko teknikaria.
- Segurtasun-instalazioen muntatzaileen taldeburua.
- Segurtasun-instalazioen mantentzaileen taldeburua.
- Telekomunikazio-sistemen muntatzaileen taldeburua.
- Telekomunikazio-sistemen mantentzaileen taldeburua.
- Segurtasun-instalazioen sektoreko arduraduna.
- Telekomunikazioen sektoreko arduraduna.
- Segurtasun-instalazioen muntatzaile elektrikoa, espezializatua.
- Telekomunikazioetako ofiziala, espezializatua.
- Teknikari laguntzailea.
- Mantentze-lanetako eta kontrolako arduraduna.

3.3. Hauek dira espezializazio-ikastaro honen kompetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak:

a) Trenbideetako seinaleztapen- eta telekomunikazio-instalazioak eta -sistemak konfiguratzea, zehaztapen teknikoaren eta arauzko preskripzioen arabera.

b) Trenbideetako seinaleztapen- eta telekomunikazio-instalazioak eta -sistemak muntatzeko planifikazioa egitea, dokumentazio teknikoaren eta proiektuko dokumentazioaren arabera, eta horretarako ezarritako dauden prozedura espezifikoak aintzat hartuta.

c) Instalazioak eta sistemak muntatzeko prozesuak gauzatzea, ezarritako protokoloak aplikatuta.

d) Instalazioak eta sistemak muntatzeko prozesuak ikuskatzea, ondo dabilzala ziurtatuz eta enpresaren helburuak betetzeko moduan doazela kontrolatuz.

e) Trenbideetako telekomunikazio- eta seinaleztapen-sistemak eraginkorrak direla egiaztatzea, eta horien funtzionamendua monitorizatzea, neurtzeko eta kontrolatzeko ekipoen bidez eta analisi eta konfigurazioko mantentze-lanetarako software-erreminten bitartez.

f) Trenbideetako seinaleztapen- eta telekomunikazio-sistemetan matxurak edo disfuntzioak aurkitzea, hautemandako sintomak, erabiltzaileak emandako informazioa, instalazioaren historia eta informazio teknikoa aintzat hartuta, besteak beste.

g) Iragartzeko, prebenitzeko eta zuzentzeko mantentze-lanen prozesuak planifikatzea, araudia aztertuz, instalazioaren baldintzak, ezarritako prozedura espezifikoak eta fabrikatzaileen gomendioak identifikatuta.

h) Trenbideetako instalazioak eta sistemak mantentzeko prozesuak gauzatzea, denborak eta emaitzen kalitatea kontrolatuta.

i) Instalazioen mantentze-prozesuak gainbegiratzea, protokolo normalizatuetatik abiatuta.

j) Trenbideetako instalazioak eta seinaleztapen- eta telekomunikazio-ekipoak zerbitzuan jartzea, eskakizun teknikoak nahiz arauak betetzen direla begiratzuz, eta kalitate- eta segurtasun-baldintzak ziurtatuz.

k) Dokumentazio teknikoa eta administratiboa betetzea, indarrean dagoen araudiaren arabera, elementuak, ekipoak eta sistemak mantentzeari eta konpontzeari buruzko dokumentuak artxibatuz eta kontserbatzeko prozesua kudeatzeko, operazioen trazabilitatea ziurtatzeko moduan.

l) Trenbideetako seinaleztapen- eta -komunikazio-sistemak mantentzeko arloak edo atalak administratzea, prozedurak eta indarrean dagoen araudia aplikatuta, eta materialen eta ekipoen hornidura eta biltegiatzea kontrolatuta.

m) Inguru seguruak sortzea norberaren lana nahiz taldearen lana behar bezala garatzeko, laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentziorako prozedurak ikuskatuz eta aplikatuz, araudian eta enpresaren helburuetan ezarritakoaren arabera.

n) Norberaren eskumeneko esparruan, egoerak, arazoak edo gorabeherak ekimenez eta autonomiaz ebaztea, sormena eta berritasuna erabilia eta norberaren eta taldekideen lana hobetzeko gogoz.

ñ) Lantaldeak antolatzea eta koordinatzea, arduraz jokatuta, lantaldeon garapena gainbegiratzuz, harreman onak izanez, lidergoa hartuz eta lantaldean sortzen diren gatazkak konpontzeko irtenbideak proposatuz.

o) Norberaren jardueraren ondoriozko eskubideak baliatzea eta betebeharrak betetzea, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera, eta bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturean aktiboki parte hartuz.

q) Produkzioko edo zerbitzugintzako prozesuetan bildutako lanbide-jardueretan, kalitatea kudeatzeko prozedurak, irisgarritasun unibertsalekoak eta «denontzako diseinukoak» aplikatzea eta berrikustea.

#### 4. Espezializazio-ikastaroaren irakasgaiak

##### 4.1. Helburu orokorrak:

a) Trenbideetako seinaleztapen- eta telekomunikazio-instalazio eta -sistemetako egitura, ekipoak eta konexio orokorra definitzea, proiektuaren dokumentaziotik, dokumentazio teknikitik eta arauzko preskripzioetatik abiatuta, haiek konfiguratzeko.

b) Trazadura orokorren eta eskema elektrikoaren eta elektronikoaren planoak marraztea, lagundutako diseinuko informatika-programak erabilia, trenbideetako seinaleztapen- eta telekomunikazio-instalazio eta -sistemak konfiguratzeko.

c) Trenbideetako seinaleztapen- eta telekomunikazio-instalazio eta -sistemetako prozedurak zehaztea, dokumentazio teknikoa eta proiektuena interpretatuz, muntaketa planifikatzeko.

d) Trenbideetako seinaleztapen- eta telekomunikazioetako instalazioak, sistemak, elementuak edo zirkuituak egiaztatuz teknika aplikatzea, ezarritako protokoloen arabera, mantentze-prozesuak gauzatzeko eta funtzionamendu-parametroak ikuskatzeko.

- e) Trenbideetako seinaleztapen- eta telekomunikazio-sistemetan egiten diren esku-hartzeak gainbegiratzea eta aztertzea, funtzionamendu-probak eginez haien operatibitatea egiaztatzeko.
- f) Trenbideetako seinaleztapen- eta telekomunikazio-sistemen funtzionaltasuna diagnostikatzea, matxurak detektatzeko eta dauden anomaliak ebaluatzeko.
- g) Esku hartzeko prozedurak, eragiketak eta sekuentziak definitzea, ekipoei eta instalazioei buruzko informazio teknikoa aztertuz eta beharrezkoak diren baliabideak zehaztuz, mantentze prediktiboa, prebentiboa eta zuzentzailea planifikatzeko.
- h) Trenbideetako seinaleztapen- eta telekomunikazio-sistemen funtzionamendua kontrolatzeko eta haien jarraipena egiteko prozedurak aplikatzea, fabrikatzaileen informazio teknikitik, txostenen analisietatik, matxuren historikotik eta aplikatzeko den arauditik abiatuta, mantentze prediktiboko programak planifikatzeko.
- i) Jarduerak programatzeko prozedura normalizatuak aplikatzea, zerbitzua kontingentzia-egoeretan simulatuz, mantentze zuzentzailearen esku-hartzeak antolatzen eta kudeatzeko.
- j) Mantentze prebentiboko teknikak aplikatzea, tresna eta erreminta egokiak erabilia, mantentze-prozesuak gauzatzeko.
- k) Trenbideetako seinaleztapen- eta telekomunikazio-instalazio eta -ekipoetako ekipoak eta elementuak doitzea, softwarea eta hardwarea konfiguratuz, haiek zerbitzuan jartzeko.
- l) Mantentzeari buruzko txosten teknikoak idaztea, ezarritako prozedurei jarraikiz, dokumentazio teknikoa eta administratiboa lantzeko baliabide informatikoak erabiliz.
- m) Trenbideetako seinaleztapen- eta telekomunikazio-azpiegituren mantentzea kudeatzeko prozedura normalizatuak aplikatzea, baliabideen eskuragarritasuna administratzeko eta aplikatu beharreko lege- eta arau-prozedurak betetzeko.
- n) Biltegia kontrolatzeko teknikak aplikatzea, programa informatikoak erabiliz, trenbideetako seinaleztapen- eta telekomunikazio-sistemak mantentzeko arlo edo ataletan materialen hornidura kudeatzeko.
- ñ) Sektorearen bilakaera zientifikoarekin, teknologikoarekin eta antolamendukoarekin lotutako ikaskuntza-baliabideak eta -aukerak aztertzea eta erabiltzea, baita informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ere, eguneratzeko gogoari eusteko eta laneko egoera berrietara eta egoera pertsonal berrietara egokitzeko.
- o) Norberaren eskumen-eremuan, ekimen eta autonomiaz sormenezko irtenbideak balioestea eta hartzea, produkzio-prozesuen garapenean sortzen diren arazo eta gorabeherak ebazteko.
- p) Laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumen-babeseko egoerak ebaluatzea, norberaren eta taldearen prebentzioko eta babeseko neurriak proposatuz eta aplikatuz, lan-prozesuetan aplikatzeko den araudiaren arabera, ingurune seguruak bermatzeko.
- q) Erabakiak arrazoituta hartzea eta, horretarako, inplikaturako aldagaiak aztertzea, hainbat esparrutako jakintzak integratzea eta arriskuak eta erabaki okerrak hartzeko aukera onartzea, askotariko egoerei, arazoei edo gorabeherari aurre egiteko eta horiek ebazteko.
- r) Lidergo, motibazio, gainbegiratze eta komunikazioko teknikak garatzea talde-laneko testuinguruetan, betiere lantaldeen antolamendua eta koordinazioa errazteko.
- s) Komunikazio-estrategiak eta -teknikak aplikatzea, transmititu beharreko edukietara, helburura eta hartzaileen ezaugarrietara egokituta, komunikazio-prozesuetan eraginkortasuna ziurtatzeko.
- t) Irigarritasun unibertsalari eta «denontzako diseinuari» erantzuteko beharrezkoak diren lanbide-ekintzak identifikatzea eta proposatzea.
- u) Ikasteko prozesuan egindako lanetan eta jardueretan kalitate-parametroak identifikatu eta aplikatzea, ebaluazioaren eta kalitatearen kultura balioesteko, eta kalitate-kudeaketako prozedurak gainbegiratzeko eta hobetzeko gai izateko.

#### 4.2. Lanbide-moduluak.

KODEA	LANBIDE-MODULUA	ORDU-ESLEIPENA
5043	Trenbideetako telekomunikazio-sistemak.	198
5044	Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemen azpiegitura.	176

5045	Trenbideko trafikoa kontrolatzeko eta kudeatzeko sistemak.	198
5046	Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko araudia.	88
5047	Lantokiko prestakuntza.	60
E313	Prestakuntza praktiko duala enpresan.	270
GUZTIRA		990

#### 4.3. Lanbide-moduluak: Ikaskuntzaren emaitzak, Ebaluazio-irizpideak eta Edukiak.

##### 1. lanbide-modulua: Trenbideetako telekomunikazio-sistemak.

Kodea: 5043

Iraupena: 198 ordu.

ECTS kredituak: 10.

Ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak.

11E. Trenbideetako telekomunikazio-sistemak karakterizatzen ditu, sistema horiek osatzen dituzten instalazioak, ekipoa eta elementuak identifikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Trenbideetako telekomunikazio-sistemak zehaztu dira.
- b) Trenbideetako telekomunikazio-sistemetako instalazioak, ekipoa eta elementuak identifikatu dira.
- c) Trenbideetako telekomunikazio-sistemetako zirkuituen eskemak interpretatu dira.
- d) Trenbideetako telekomunikazio-sistemetako parametroak eta ezaugarriak zehaztu dira, eremu funtzionalen arabera, lege-araudiarekin eta dokumentazio teknikoarekin bat etorriz.
- e) Trenbideetako telekomunikazio-sistemen araudia eta dokumentazio teknikoa identifikatu dira.
- f) Ingurumen-segurtasunari buruzko araudia eta prebentzio- eta babes-neurri indibidualak kontuan hartu dira.

Edukiak: Trenbideetako telekomunikazio-sistemak karakterizatzea.

- Trenbideetako telekomunikazio-sistemen tipologia eta ezaugarriak, eremu funtzionalen arabera.
- Komunikazio-sare finakoak. Arkitektura. Ekipamendua:
  - Zuntz optikoa. DWDM (uhin-luzeraren zatiketa bidezko dentso multiplexatua).
  - Datu-sareak.
  - Transmisio- eta garraio-sareak: PDH (hierarkia digital plesiokronoa), SDH (hierarkia digital sinkronoa), GbE (Gigabit Ethernet).
  - IP sareak (Interneteko protokoloa). MPLS (protokolo anitzeko etiketen konmutazioa).
  - Azpisistema osagarriak.
- Komunikazio-sare mugikorak. Arkitektura. Ekipamendua:
  - PMR (irradi-telefonía mugikor pribatuko sistemak):
    - Sistema analogikoak.
    - Sistema digitalak.
  - TETRA (Trans European Trunked Radio).
  - Banda zabaleko Trena-Lurra telekomunikazioak. WIFI (hari gabeko fidelitatea).

- CBTC (komunikazioetan oinarritutako trenen kontrola). Irrati-azpisistema.
- GSM-R (Global System for Mobile Railways):
  - BSS (oinarrizko estazioen azpisistema). BS (oinarrizko estazioak). BSC (oinarrizko estazioen kontrola).
  - NSS (sare eta kommutazioko azpisistema).
  - OMSS (eragiketa eta mantentzeko azpisistema).
  - GPRS (irradi bidezko paketeen zerbitzu orokorra).
- Komunikazio mugikorren sareen bilakaera.
- Ahots eta datuen irradi-komunikazioko sistemen joerak.
  - FRMCS (Future Railway Mobile Communication System)
  - Erlazionatutako beste sistema batzuk.
- Ahots-kommutazioko sistemak.

2IE. Trenbideetako telekomunikazio-instalazioak konfiguratzeko, planoak eta eskemak marraztuz eta haien egitura, ekipoa eta konexio orokorra definituz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Instalazioa dagoen espazio edo esparruen ezaugarriak identifikatu dira.
- b) Instalazioa osatzen duten elementuak eta ekipoa hautatu dira.
- c) Elementuak eta espazioak instalazioaren konfigurazioarekin lotu dira.
- d) Beste instalazio batzuen interferentzia-iturriak eta ingurumen-baldintzak hartu dira kontuan.
- e) Trenbideetako telekomunikazio-sistemen instalazioaren planoak eta eskemak egin dira, aplikazioari laguntzeko programa informatikoak erabiliz.
- f) Trenbideetako telekomunikazio-sistemen instalazioaren konexio-elementuak zehaztu dira.
- g) Ustiapen-sistemen funtzionamendu-datuak biltzeko gailuak zehaztu dira.
- h) Instalazioa kokatuta dagoen eremu edo esparruetako segurtasun fisikoko baldintzak definitu dira.
- i) Instalazioei aplikatu beharreko dokumentazio tekniko eta administratiboa eta trenbide-araudia identifikatu eta interpretatu dira.

Edukiak: Trenbideetako telekomunikazio-instalazioak konfiguratzeko.

- Instalazioaren espazioaren edo esparruaren ezaugarriak.
- Elementuak eta ekipoa. Instalazioko ekipo eta elementuak dimentsionatzea. Aginte-koadroak. Aginte- eta babes-gailuak. Kanalizazioak. Kableak. Planoaren gainean kokatzea.
- Beste instalazio batzuen trazadurak egiaztatzea, instalazioen arteko interferentziarik ez izateko.
- Instalazioaren eskemak egitea. Planoak marrazteko lagundutako diseinuko aplikazio-softwarea.
- Instalazioko elementuak eta ekipoa telekomunikazio-sistem(et)an integratzea. Konektorezazio-teknikak. Interkonexio-puntuak, banaketa-puntuak, sarbide-puntuak eta sarbide terminaleko oinarriak.
- Tokiko eta urruneko datuak biltzeko gailuak.
- Telekomunikazio-esparru eta -instalazioetako segurtasun fisikoko baldintzak. Aireztapena, hozkuntza edo berokuntza. Argiteria. Ezaugarriak.
- Hargune elektriko bereizia. Trenbide-elektrofizikaziotik egokitutako hornidura elektrikoa. Etenik gabeko elikadura-sistemak.
- Araudia eta zehaztapen teknikoak. Trenbide-araudia.

3IE. Trenbideetako telekomunikazio-sistemen muntaketa eta desmuntaketa planifikatzen ditu,

haiek administratzeko giza baliabideak eta baliabide materialak zehaztuz eta kuantifikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Trenbideetako telekomunikazio-sistemak muntatzeko eta desmuntatzeko planak identifikatu dira.
- b) Trenbideetako telekomunikazio-sistemetako elementuak eta ekipoak muntatzeko eta desmuntatzeko planen sekuentzia planifikatu da.
- c) Trenbideetako telekomunikazio-sistemak muntatzeko eta desmuntatzeko planaren jarraipena ezarri da.
- d) Muntatzeko eta desmuntatzeko planaren prozesuak ezarri dira, kalitate- eta segurtasun-planak aplikatuz.
- e) Instalazioa muntatzeko eta desmuntatzeko lan-prozedurak ezarri dira.
- f) Muntatzeko edo desmuntatzeko eragiketak egiteko materialen hornidura planifikatu da.
- g) Muntatzeko edo desmuntatzeko eragiketak eraginkortasunez garatzeko baliabide material, ekipamendu eta giza baliabide egokienak zehaztu dira.
- h) Zerbitzu berrien premiak zehaztu dira, eta babes-baliabideak eta -estrategiak esleitu eta dokumentatu dira, sisteman eskuragarri dagoen ahalmenaren azterketa egin ondoren.

Edukiak: Trenbideetako telekomunikazio-sistemen muntaketa eta desmuntaketa planifikatzea.

- Muntatzeko eta desmuntatzeko plana.
- Proiektu teknikoa. Memoria. Muntatzeko eta desmuntatzeko materialak eta erremintak.
- Kalitate-plana.
- Segurtasun-plana.
- Ekipoen hornidura kudeatzea:
  - Izapidetzea.
  - Biltegitratzea. Ezaugarriak. Antolamendu-sistemak. Obra-biltegiak.
  - Erremintak, tresnak eta lanabesak kudeatzea.
  - Trazabilitatea.
  - Horniduraren eta biltegitratzearen alorreko programa informatikoak.
- Giza baliabideak kudeatzea:
  - Egitura. Antolamendua. Funtzioak.
  - Prestakuntza- eta gaikuntza-planak.
  - Komunikazio-teknikak. Talde-lana. Gatazkak ebazteko teknikak.
  - Muntatzeko eta desmuntatzeko jarduketak eta eragiketa-jarduerak koordinatzea.
- Zerbitzuen hornidura kudeatzea:
  - Zerbitzu berrien premiak jasotzea.
  - Eskuragarri dagoen ahalmena aztertzea.
  - Babeseko baliabideak, kanalak eta mekanismoak aukeratzea eta erreserbatzea.
  - Zerbitzuari lotutako baliabideen dokumentazioa.

4IE. Telekomunikazio-sistemak muntatzeko eta desmuntatzeko eragiketak egiten ditu, haiek zerbitzuan jartzeko elementuak eta ekipoak integratuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Trenbideetako telekomunikazio-sistemetako elementuak eta ekipoak muntatzeko eta desmuntatzeko eragiketak eta protokoloak karakterizatu dira.
- b) Sistemetako eta instalazioetako esku-hartze mota bakoitzari aplikatu beharreko trenbide-

segurtasuneko preskripzioak identifikatu dira.

- c) Aukeratutako prozeduraren arabeko ekipoak eta erremintak zehaztu dira.
- d) Elementua edo ekipoa ordeztu edo konpondu da.
- e) Elementuak eta ekipoak konfiguratu dira, eta osagaien doikuntzak egin dira.
- f) Sarean eragiketak egiteko teknikak definitu dira.
- g) Instalazioa zerbitzuan jarri da.
- h) Ingurunean eragina duten eragile kutsatzaileak eta ondorio kutsagarriak identifikatu dira, eta haiek tratatzeko indarrean dagoen araudia aplikatu da.
- i) Egindako jarduketak dokumentatu dira.

Edukiak: Trenbideetako telekomunikazio-sistemak muntatzeko eta desmuntatzeko eta zerbitzuan jartzeko eragiketak egitea.

- Muntatzeko eta desmuntatzeko teknikak.
- Ekipoen eta zerbitzuen sendotasun- eta babes-teknikak.
- Mantentzeko protokoloak eta prozesuak.
- Trenbide-segurtasuneko preskripzioak.
- Muntatzeko eta desmuntatzeko tresnak eta lanabesak.
- Ekipoak zerbitzuan jartzea eta hasierako konfigurazioa egitea.
- Doikuntza-prozesuak.
- Ekipo informatikoa konfiguratzea.
- Sistemen integrazioa. Ekipoen konektagarritasun logikoa.
- Sareko eragiketa:
  - Errendimendua, gertaerak eta gorabeherak gainbegiratzeko eta kudeatzeko teknikak (zerbitzua ziurtatzea).
  - Zerbitzu berriak konfiguratzea.
  - Sarea eskalatzeko prozedurak.
- Trenbideetako telekomunikazio-sistemak zerbitzuan jartzeko planak, prozesuak eta protokoloak.
- Muntatzeari edo desmuntatzeari eta zerbitzuan jartzeari buruzko dokumentazioa.
- Lan-orriak eta kalitate-protokoloak.

5IE. Trenbideetako telekomunikazio-sistemen funtzionamendua egiaztatzen du, matxurak eta disfuntzioak detektatuz eta lokalizatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Trenbideetako telekomunikazioen osagaien eta sistema integratuen funtzionamendua egiaztatu eta monitorizatu da.
- b) Probak eta neurriak egin dira parametroen balio anomaloak identifikatuz, dokumentazio teknikoan jasotako erreferentziatzko datuekin alderatuz.
- c) Trenbideetako telekomunikazio-sistemen funtzionamenduari buruzko datuak atera eta aztertu dira.
- d) Mantentze prediktiboko esku-hartzeak zehaztu dira.
- e) Matxurak diagnostikatzeko eta lokalizatzeako teknikak aplikatu dira, ekipamendu bakoitzaren tipologiaren eta ezaugarrien arabera.
- f) Matxurak eta disfuntzioak diagnostikatzeko eta lokalizatzeako erremintak eta ekipoak hautatu dira.
- g) Matxurak eta disfuntzioak detektatzeko faseak eta zereginak diseinatu dira.
- h) Ordeztu, doitu edo konpondu beharreko elementua, ekipoa edo sistema zehaztu da.
- i) Ekipo, lotura eta zerbitzuen babes- eta erreduantzia-mekanismoen funtzionamendua egiaztatu da.



j) Detektatutako matxurak eta egiaztatze-prozesuak dokumentatu dira.

Edukiak: Telekomunikazio-sistemen funtzionamendua egiaztatzea. Matxurak eta disfunczioak diagnostikatzea eta lokalizatzea.

- Egiaztatze-prozedurak.
- Sistemak kudeatzeko eta monitorizatzeko aplikazio informatikoak.
- Neurtzeko ekipoak eta tresnak.
- Egiaztatu beharreko parametroak.
- Trenbideetako telekomunikazio-sistemen neurketak eta saiakuntza funtzionalak.
- Emaizak interpretatzea eta balioak dokumentazio teknikoaren arabera alderatzea.
- Mantentze prediktiboa egiteko teknikak.
- Matxurak eta disfunczioak tokitik eta urrunetik diagnostikatzeko eta lokalizatzeko teknikak.
- Matxurak diagnostikatzeko eta lokalizatzeko ekipoak eta erremintak.
- Matxurak detektatzeko eragiketak eta jarduketa-sekuentzia.
- Sistemaren erredundantzia eta sendotasuna eta zerbitzuen babesak.
- Gertaeren, matxuren, disfunczioen eta egiaztatze-prozesuen erregistro dokumentala.

6IE: Trenbideetako telekomunikazio-sistemen mantentzea planifikatzen du, plan-motak aztertuz eta hautatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Trenbideetako telekomunikazio-sistemak mantentzeko planak identifikatu dira.
- b) Mantentze-plan mota bakoitzaren gauzatze-sekuentzia planifikatu da.
- c) Mantentze-planetan zehaztutako sistemen, elementuen eta ekipoen jarraipena ezarri da.
- d) Mantentze-planeko prozesuak ezarri dira, kalitate- eta segurtasun-planak aplikatuz.
- e) Instalazioa mantentzeko lan-prozedurak ezarri dira.
- f) Mantentze-lanak egiteko materialen hornidura planifikatu da.
- g) Mantentze-lanak eraginkortasunez garatzeko baliabide material, ekipamendu eta giza baliabide egokienak zehaztu dira.
- h) Zerbitzu berrien premiak zehaztu dira, eta babes-baliabideak eta -estrategiak esleitu eta dokumentatu dira, sisteman eskuragarri dagoen ahalmenaren azterketa egin ondoren.

Edukiak: Trenbideetako telekomunikazio-sistemen mantentzea planifikatzea.

- Mantentze-plana. Mantentze zuzentzailea, prebentiboa eta prediktiboa.
- Mantentze-prozesuak. Mantentze-lanak, -materialak eta -erremintak.
- Kalitate-plana.
- Segurtasun-plana.
- Mantentze-lanetarako ekipoen hornidura kudeatzea:
  - o Izapidetzea.
  - o Biltegitratzea. Ezaugarriak. Antolamendu-sistemak. Obra-biltegiak.
  - o Erremintak, tresnak eta lanabesak kudeatzea.
  - o Trazabilitatea.
  - o Horniduraren eta biltegitratzearen alorreko programa informatikoak.
- Mantentze-lanetarako giza baliabideak kudeatzea:
  - o Egitura. Antolamendua. Funtzioak.
  - o Prestakuntza- eta gaikuntza-planak.
  - o Komunikazio-teknikak. Talde-lana. Gatazkak ebazteko teknikak.
  - o Mantentze-jarduerak eta eragiketa-jarduerak koordinatzea.

– Zerbitzuen hornidura kudeatzea:

- Zerbitzu berrien premiak jasotzea.
- Eskuragarri dagoen ahalmena aztertzea.
- Babeseko baliabideak, kanalak eta mekanismoak aukeratzea eta erreserbatzea.
- Zerbitzuari lotutako baliabideen dokumentazioa.

7IE: Mantentze-eragiketak egiten ditu, trenbideetako telekomunikazio-sistemetako elementuak eta ekipoak konfiguraturaz, ezarritako protokoloen arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Trenbideetako telekomunikazio-sistemen mantentze zuzentzaile eta prebentiborako eragiketak eta protokoloak zehaztu dira.
- b) Sistemetako eta instalazioetako esku-hartze mota bakoitzari aplikatu beharreko trenbide-segurtasuneko preskripzioak identifikatu dira.
- c) Aukeratutako prozeduraren araberrako ekipoak eta erremintak zehaztu dira.
- d) Mantentzean elementua edo ekipoa ordeztu edo konpondu da.
- e) Elementuak eta ekipoak konfiguratu dira, eta osagaien doikuntzak egin dira.
- f) Ekipo informatikoetako hardwareak eta softwareak sistemaren premiei erantzuten dietela egiaztatu da.
- g) Elementuak eta ekipoak interkonektatu dira, eta sistemetan integratu dira.
- h) Erreduantziako eta ekipoen babeseko, loturako eta zerbitzuetako estrategiak zehaztu eta antolatu dira.
- i) Ingurunean eragina duten eragile kutsatzaileak eta ondorio kutsagarriak identifikatu dira, eta haiek tratatzeko indarrean dagoen araudia aplikatu da.
- j) Egindako jarduketak dokumentatu dira.

Edukiak: Mantentze-eragiketak egitea. Trenbideetako telekomunikazio-sistemak ezarritako protokoloen arabera konfiguratzea.

- Mantentze prebentiboak eta zuzentzaileak egiteko teknikak. Eskuzko *in situ* eragiketak. Urruneko mantentzea software teknikoaren bidez.
- Ekipoen eta zerbitzuen sendotasun- eta babes-teknikak.
- Mantentzeko protokoloak eta prozesuak.
- Trenbide-segurtasuneko preskripzioak.
- Mantentzeko tresnak eta lanabesak.
- Ekipoak zerbitzuan jartzea eta hasierako konfigurazioa egitea.
- Doikuntza-prozesuak.
- Ekipo informatikoa konfiguratzea.
- Sistemen integrazioa. Ekipoen konektagarritasun logikoa.
- Sareko eragiketa:
- Errendimendua, gertaerak eta gorabeherak gainbegiratzeko eta kudeatzeko teknikak (zerbitzua ziurtatzea).
- Zerbitzu berriak konfiguratzea.
- Sarea eskalatzeko prozedurak.
- Trenbideetako telekomunikazio-sistemak zerbitzuan jartzeko planak, prozesuak eta protokoloak.
- Mantentzeari eta zerbitzuan jartzeari buruzko dokumentazioa.
- Lan-orriak eta kalitate-protokoloak.

8IE: Trenbideetako telekomunikazio-sistemen laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak

aplikatzen ditu, muntatze-, desmuntatze- eta mantentze-lanekin lotutako laneko arriskuak identifikatuz eta haiek prebenitzeko neurri eta ekipoak identifikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Materialak, ekipoak eta erremintak manipulatzek dakartzan laneko arriskuak eta arrisku-maila identifikatu dira.
- b) Hartu beharreko segurtasun-neurriak eta norbera eta taldea babestekoak deskribatu dira.
- c) Lan-ekipoetako materialak, erremintak eta ekipamendua manipulatzeko gertatzen diren istripuen kausa ohikoenak identifikatu dira.
- d) Trenbide-ingurunean egindako eragiketetan laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia bete da.

Edukiak: Trenbideetako telekomunikazio-sistemekin lotutako laneko arriskuei buruzko prebentzio-arauak aplikatzea.

- Trenbideetako telekomunikazio-sistemako laneko arrisku espezifikoak identifikatzea.
- Trenbideetako telekomunikazio-sistemak muntatzeari, desmuntatzeari eta mantentzeari lotutako laneko arriskuak.
- Ekipo elektriko eta elektronikoaren maneiatzearen lotutako laneko arriskuak.
- Ekipoak eta erremintak maneiatzea.
- Prebentzio eta babes kolektiboa.
- Norbera babesteko ekipamendua.
- Trenbide-segurtasunari buruzko araudia.

2. lanbide-modulua: Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemen azpiegitura.

Kodea: 5044.

Iraupena: 176 ordu.

ECTS kredituak: 7.

Ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak.

11E: Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemen azpiegiturako ekipoak eta osagaiak karakterizatzen ditu, haien funtzionaltasunarekin erlazionatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemak identifikatu dira.
- b) Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemen azpiegituraren ekipamendua deskribatu da.
- c) Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistema bakoitzaren osagaiak identifikatu dira.
- d) Osagaiak eta ekipoak trenbide-azpiegituran duten kokapena ezagutu da.
- e) Osagaiak eta ekipoak trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sisteman duten funtzioarekin erlazionatu dira.

Edukiak: Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemen azpiegitura karakterizatzea.

- Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemen azpiegitura. Arkitektura. Instalazioak, ekipoak eta elementuak. Oinarrizko ezaugarriak. Eskemak. Funtzionamendu-parametroak. Lege-dokumentazioa eta dokumentazio teknikoa.
- Seinaleak. Ezaugarriak, alderdiak eta motak.
- Trena detektatzeko sistemak:
- Bide-zirkuituen egitura:

- Juntura induktiboak.
- Juntura isolatzaileak.
- Junturadun zirkuituak.
- Junturarik gabeko zirkuituak.
  
- Ardatz-kontagailuak.
- Sistema mistoak.
  
- Katigamenduak:
  
- Mekanikoak.
- Elektromekanikoak.
- Elektronikoak.
- Elektrikoak
  
- Orratzei eragiteko sistemak:
  
- Eragitea.
- Morroilo-katigamendua.
- Posizioaren egiaztapena.
- Orratz-sistema berogarriak.
- Lemak
  
- Blokeoak:
  
- Telefonikoa.
- Askatze automatikokoa.
- Automatikoak.
- Albo-seinaleztapenekoa.
- Kontrol automatikokoa.
- Eskuzko elektrikoa.
  
- Trenen babes automatikoko sistemak (ATP):
  
- ASFA (seinaleztapena iragartzeko eta automatikoki frenatzeko sistema). ASFA analogikoa. ASFA digitala. Balizak.
- LZB (transmisio jarraituko sistema). Kable induktibo jarraituko begizta.
- Eskuzkoa + ATP (trenen babes automatikoa):
  - Abiadura-kodeak.
  - Xede-distantzia.
  
- ERTMS (Europako trenbideko trafikoa kudeatzeko sistema). Eurobalizak. Eurobegizta. RBC (Radio Block Center).
- CBTC. (komunikazioetan oinarritutako trenen kontrola). Begizta induktiboa. Birlokalizazio-balizak. Irrati-antenak.
- Erlazionatutako beste sistema batzuk.
  
- Topeak.
- ATO (trenen eragiketa automatikoko sistemak).
- Trenbide-pasaguneak babesteko sistemak:
  
- Soinu- eta argi-seinaleak.
- Langaerdiak.
- Trenaren igarotzea detektatzeko sistemak.

- Trenbide-pasaguneetan oztopoak detektatzeko sistemak.
- Babesarekin erlazionatutako beste sistema batzuk.
- Trenbideko detekzio-sistema osagarriak.
- Kaxa beroen eta aleka harturiko frenoen detektagailuak.
- Trenbidera eroritako objektuen detektagailuak.
- Trenbideko inpaktuen detektagailuak.
- Alboko haizearen detektagailuak.
- Detekzioarekin erlazionatutako beste sistema batzuk.
- Beste sistema batzuk: Trafiko kontrol zentralizatuko (CTC) sistemak, energia-sistemak, seinaleztapen-kableak eta lotutako obra zibila, besteak beste.

2IE: Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemen azpiegituraren egitura, ekipoa eta konexio orokorra konfiguratzeko dituzten, trazadura orokorreko planoak eta eskema elektriko eta elektronikoak marraztuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemen azpiegituraren ekipamendua definitu da.
- b) Ekipoen, elementuen eta instalazioen kokapen fisikoa zehaztu da, arauzko preskripzioak eta trenbide-araudia kontuan hartuta.
- c) Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemetan ekipamenduak eta instalazioak konektatzeko elementuak zehaztu dira.
- d) Ustiapen-sistemen funtzionamendu-datuak biltzeko gailuak zehaztu dira.
- e) Planoak eta eskemak egin dira, programa informatikoak erabiliz.
- f) Dokumentazio teknikoa identifikatu eta interpretatu da.

Edukiak: Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemen azpiegitura konfiguratzeko.

- Elementuak, ekipoa eta instalazioak. Ezaugarriak. Kanalizazioak. Kableak. Planoaren gainean kokatzea.
- Ekipamenduaren kokapen fisikoaren ezaugarriak.
- Beste instalazio batzuen trazadurak egiaztatzea. Instalazioen arteko interferentziak.
- Ekipoen eta instalazioen segurtasun-baldintzak.
- Hargune elektriko bereizia. Trenbide-elektifikaziotik egokitutako hornidura elektrikoak. Etenik gabeko elikadura-sistemak.
- Instalazioaren eskemak egitea. Planoak marrazteko lagundutako diseinuko aplikazio-softwarea.
- Instalazioko elementuak eta ekipoa trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemetan integratzea. Konektore-tekniak. Interkonexio-puntuak, banaketa-puntuak, sARBIDE-puntuak eta sARBIDE terminaleko oinarriak.
- Tokiko eta urruneko datuak biltzeko gailuak.
- Araudia eta zehaztapen teknikoak. Trenbide-araudia. ISA ziurtagiria.

3IE. Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemen azpiegitura muntatzea eta desmuntatzea planifikatzen du, haiek administratzeko giza baliabideak eta baliabide materialak zehaztuz eta kuantifikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemak muntatzeko eta desmuntatzeko plana identifikatu da.
- b) Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemetako elementuak eta ekipoa muntatzeko

eta desmuntatzeko sekuentzia planifikatu da.

c) Gauzatzearen jarraipena ezarri da.

d) Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemak muntatzeko eta desmuntatzeko prozesuak ezarri dira.

e) Muntatzeko eta desmuntatzeko planaren lan-prozedurak ezarri dira, kalitate- eta segurtasun-planak aplikatuz.

f) Muntatzeko edo desmuntatzeko eragiketak egiteko materialen hornidura planifikatu da.

g) Muntatzeko edo desmuntatzeko eragiketak eraginkortasunez garatzeko baliabide material, ekipamendu eta giza baliabide egokienak zehaztu eta kuantifikatu dira.

h) Zerbitzu berrien premiak zehaztu dira, eta babes-baliabideak eta -estrategiak esleitu eta dokumentatu dira, sisteman eskuragarri dagoen ahalmenaren azterketa egin ondoren.

Edukiak: Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemen azpiegitura muntatzeko eta desmuntatzeko plangintza.

- Muntatzeko eta desmuntatzeko plana.
- Proiektu teknikoa. Memoria. Muntatzeko eta desmuntatzeko materialak eta erremintak.
- Kalitate-plana.
- Segurtasun-plana.
- Ekipoen hornidura kudeatzea:

- Izapidetzea.
- Biltegitratzea. Ezaugarriak. Antolamendu-sistemak. Obra-biltegiak.
- Erremintak, tresnak eta lanabesak kudeatzea.
- Trazabilitatea.
- Horniduraren eta biltegitratzearen alorreko programa informatikoak.

- Giza baliabideak kudeatzea:

- Egitura. Antolamendua. Funtzioak.
- Prestakuntza- eta gaikuntza-planak.
- Komunikazio-teknikak. Talde-lana. Gatazkak ebazteko teknikak.
- Muntatzeko eta desmuntatzeko jarduketak eta eragiketa-jarduerak koordinatzea.

- Zerbitzuen hornidura kudeatzea:

- Zerbitzu berrien premiak jasotzea.
- Eskuragarri dagoen ahalmena aztertzea.
- Babeseko baliabideak, kanalak eta mekanismoak aukeratzea eta erreserbatzea.
- Zerbitzuari lotutako baliabideen dokumentazioa.

4IE. Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemen azpiegitura muntatzeko eta desmuntatzeko lanak egiten ditu, ekipoak eta elementuak integratuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemen azpiegituraren mantentze zuzentzaile eta prebentiborako eragiketak eta protokoloak zehaztu dira.

b) Sistemetako eta instalazioetako esku-hartze mota bakoitzari aplikatu beharreko trenbide-segurtasuneko preskripzioak identifikatu dira.

c) Aukeratutako prozeduraren arabeko ekipoak eta erremintak zehaztu dira.

d) Mantentzean elementua edo ekipoa ordeztu edo konpondu da.

e) Elementuak eta ekipoak konfiguratu dira, eta osagaien doikuntzak egin dira.

f) Ekipo informatikoetako hardwareak eta softwareak sistemaren premiei erantzuten dietela egiaztatu da.

- g) Elementuak eta ekipoak interkonektatu dira, eta sistemetan integratu dira.
- h) Erreduantziako eta ekipoen babeseko, loturako eta zerbitzuetako estrategiak zehaztu eta antolatu dira.
- i) Ingurunean eragina duten eragile kutsatzaileak eta ondorio kutsagarriak identifikatu dira, eta haiek tratatzeko indarrean dagoen araudia aplikatu da.
- j) Egindako jarduketak dokumentatu dira.

Edukiak: Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemen azpiegitura muntatzeko eta desmuntatzeko eta zerbitzuan jartzeko eragiketak egitea.

- Muntatzeko eta desmuntatzeko teknikak.
- Ekipoen eta zerbitzuen sendotasun- eta babes-teknikak.
- Mantentzeko protokoloak eta prozesuak.
- Trenbide-segurtasuneko preskripzioak.
- Muntatzeko, desmuntatzeko eta mantentzeko tresnak eta lanabesak.
- Ekipoak zerbitzuan jartzea eta hasierako konfigurazioa egitea.
- Doikuntza-prozesuak.
- Ekipo informatikoa konfiguratzea.
- Sistemen integrazioa. Ekipoen konektagarritasun logikoa.
- Sareko eragiketa:
  - Errendimendua, gertaerak eta gorabeherak gainbegiratzeko eta kudeatzeko teknikak (zerbitzua ziurtatzea).
  - Zerbitzu berriak konfiguratzea.
  - Sarea eskalatzeko prozedurak.
- Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemen azpiegitura zerbitzuan jartzeko planak, prozesuak eta protokoloak.
  - Muntatzeari eta desmuntatzeari eta zerbitzuan jartzeari buruzko dokumentazioa.
  - Lan-orriak eta kalitate-protokoloak.

5IE. Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemen azpiegiturako ekipoen eta osagaien funtzionamendua egiaztatzen du, matxurak eta disfuntzioak identifikatuz eta lokalizatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemen azpiegiturako osagaien eta ekipoen funtzionamendua egiaztatu eta monitorizatu da.
- b) Matxurak diagnostikatzeko eta lokalizatzeko erremintak eta ekipoak hautatu dira.
- c) Matxurak eta disfuntzioak diagnostikatzeko eta lokalizatzeko teknikak aplikatu dira, ekipamendu bakoitzaren tipologiaren eta ezaugarrien arabera.
- d) Egindako neurketak eta saiakuntzak interpretatu dira, ager daitezkeen disfuntzioak seinalatuz.
- e) Behar diren mantentzeko esku-hartzeak zehaztu dira.
- f) Detektatutako matxurak eta disfuntzioak eta egiaztatze-prozesuak dokumentatu dira.

Edukiak: Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemen azpiegituren funtzionamenduaren eta matxuren diagnostia egiaztatzea.

- Egiaztatze-prozedurak.
- Sistemak kudeatzeko eta monitorizatzeko aplikazio informatikoak.
- Neurtzeko ekipoak eta tresnak.
- Egiaztatu beharreko parametroak.
- Neurketa eta saiakuntza funtzionalak.
- Emaizak interpretatzea eta balioak dokumentazio teknikoaren arabera alderatzea.

- Mantentze prediktiboa egiteko teknikak.
- Matxurak eta disfuntzioak tokitik eta urrunetik diagnostikatzeko eta lokalizatzeko teknikak.
- Matxurak diagnostikatzeko eta lokalizatzeko ekipoak eta erremintak.
- Matxurak detektatzeko eragiketak eta jarduketa-sekuentzia.
- Gertaeren, matxuren eta egiaztatze-prozesuen erregistro dokumentala.

6IE. Trenbide-seinaleen eta -segurtasuneko sistemen azpiegituraren mantentzea planifikatzen du, hainbat plan-mota aztertuz eta hautatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemen azpiegitura mantentzeko planak identifikatu dira.
- b) Mantentze-plan mota bakoitzaren gauzate-sekuentzia planifikatu da.
- c) Mantentze-planetan zehaztutako sistemen, elementuen eta ekipoen jarraipena ezarri da.
- d) Mantentze-planeko prozesuak ezarri dira, kalitate- eta segurtasun-planak aplikatuz.
- e) Instalazioa mantentzeko lan-prozedurak ezarri dira.
- f) Mantentze-lanak egiteko materialen hornidura planifikatu da.
- g) Mantentze-lanak eraginkortasunez garatzeko baliabide material, ekipamendu eta giza baliabide egokienak zehaztu dira.
- h) Zerbitzu berrien premiak zehaztu dira, eta babes-baliabideak eta -estrategiak esleitu eta dokumentatu dira, sisteman eskuragarri dagoen ahalmenaren azterketa egin ondoren.

Edukiak: Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemen azpiegitura mantentzeko plangintza.

- Mantentze-plana. Mantentze zuzentzailea, prebentiboa eta prediktiboa.
- Mantentze-prozesuak. Mantentze-lanak, -materialak eta -erremintak.
- Kalitate-plana.
- Segurtasun-plana.
- Mantentze-lanetarako ekipoen hornidura kudeatzea:
  - Izapidetzea.
  - Biltegitratzea. Ezaugarriak. Antolamendu-sistemak. Obra-biltegiak.
  - Erremintak, tresnak eta lanabesak kudeatzea.
  - Trazabilitatea.
  - Horniduraren eta biltegitratzearen alorreko programa informatikoak.
- Mantentze-lanetarako giza baliabideak kudeatzea:
  - Egitura. Antolamendua. Funtzioak.
  - Prestakuntza- eta gaikuntza-planak.
  - Komunikazio-teknikak. Talde-lana. Gatazkak ebazteko teknikak.
  - Muntatzeko eta mantentzeko jarduketak eta eragiketa-jarduerak koordinatzea.
- Zerbitzuen hornidura kudeatzea:
  - Zerbitzu berrien premiak jasotzea.
  - Eskuragarri dagoen ahalmena aztertzea.
  - Babeseko baliabideak, kanalak eta mekanismoak aukeratzea eta erreserbatzea.
  - Zerbitzuari lotutako baliabideen dokumentazioa.

7IE. Mantentze-eragiketak egiten ditu trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemen azpiegiturako elementuak eta ekipoak konfiguraturaz, ezarritako protokoloen arabera.

Ebaluazio-irizpideak:



- a) Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemen azpiegituraren mantentze zuzentzaile eta prebentiborako eragiketak eta protokoloak zehaztu dira.
- b) Sistemetako eta instalazioetako esku-hartze mota bakoitzari aplikatu beharreko trenbide-segurtasuneko preskripzioak identifikatu dira.
- c) Aukeratutako prozeduraren araberako ekipoak eta erremintak zehaztu dira.
- d) Mantentzean elementua edo ekipoa ordeztu edo konpondu da.
- e) Elementuak eta ekipoak konfiguratu dira, eta osagaien doikuntzak egin dira.
- f) Ekipo informatikoetako hardwareak eta softwareak sistemaren premiei erantzuten dietela egiaztatu da.
- g) Elementuak eta ekipoak interkonektatu dira, eta sistemetan integratu dira.
- h) Erreduantziako eta ekipoen babeseko, loturako eta zerbitzuetako estrategiak zehaztu eta antolatu dira.
- i) Ingurunean eragina duten eragile kutsatzaileak eta ondorio kutsagarriak identifikatu dira, eta haiek tratatzeko indarrean dagoen araudia aplikatu da.
- j) Egindako jarduketak dokumentatu dira.

Edukiak: Trenbide-seinaleetako eta -segurtasuneko sistemen azpiegitura mantentzeko eta konfiguratzeko eragiketak egitea.

- Mantentze prebentiboak eta zuzentzaileak egiteko teknikak. Eskuzko *in situ* eragiketak. Urruneko mantentzea software teknikoaren bidez.
- Ekipoen eta zerbitzuen sendotasun- eta babes-teknikak.
